

HARREMANAK

Gure merkatu-segmentuaren aldetik lortu nahi duguna:

Hainbat izan daitezke bezeroen eta enpresaren arteko harremanaren atzean egon daitezkeen motibazioak. Motibazioak aldi berean jazo daitezke, baina baita bakoitza bere aldetik ere. Honakoak dira motibaziorik ohikoena:

- **Bezeroa edo kontsumitzaile berriak lortzea**

Motibazio hau edozein enpresatan aurkitu daiteke, gure enpresak konfiantza sortzeko besteengan eta ezaguna izateko kontsumitzaile edo bezero berriak behar ditu, horretarako gure ekintzen kalitatea ona izan behar da eta bezeroarekiko harreman ona izatea ere garrantzia izango du, bi oinarritzko gauza hauek lortu egiten baditugu bezero berriak motibatuagoak egongo dira kontratatatzeko gure enpresa kontratatatzeko.



- **Enpresak dauzkan bezeroei eustea**

Momentu honetan gure zerbitzuak ematen ditugunean kalitatea eta bezeroen ongizatea bilatzen dugu helburu argi bat lortzeko, helburu hori bezeroei eustea da. Bezeroak pozik badaude hemandako zerbitzuarekin hurrengo batean baliteke gurekin berriro kontaktuan jartzea ekitaldi berri bat egiteko beraz oso garrantzitsua da bezeroa pozik egotea bere fideltasuna lortzeko.



- **Salmenta kopurua handitzea**

Enpresako ekintzen eskaerak igotzen badira gure enpresarentzako irabaziak ere handiagoak izango dira, beraz, diru gehiago lortuko dugu eta denbora tarte luze batera begira gure zerbitzuen kalitatea ere igo egingo da.



-Nolako harremana edo harremanak ezarri nahi dugu gure bezeroekin:

Konbinazio bat egitea erabaki dugu: zerbitzu automatizatua webgunearen bitartez, bezeroek beren eskabideak egin ahal izan ditzaten denda fisiko batera joan behar izan gabe, eta bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua. Horrela kontaktuan jartzeko elkarrekin errazagoa izango da eta gure zerbitzuen kalitatea igoko da. Aldi berean bezeroak duten zalantza guztiei erantzun egingo diegu eta egiten hari garen ekintzaren berri heman ahalko diegu ere bai, beraz lortzen duguna tratu honekin bezeroekin harremanak estutzea da eta lana modu eraginkorrean egitea.

